

RAMON ARECES FUNDACIONAREN LAGUNTZAK:

TALENTUAREN ITZULERA- III. Edizioa

Ramon Areces Fundazioak atzerrian finkatuta dauden zientzialariak Espainiara itzultzeko programa berritzaile hau abiarazi du, bost urtez ikerketa-proiektu garrantzitsu bat garatu ahal izan dezaten, Espainiako ikerketa-erakunde publiko batean integratuta.

- Informazio gehiago erakundearen webgunean:

<https://www.fundacionareces.es/fundacionareces/es/programa-de-retonorno-del-talento/edicion-2025/>

Epea: 2025eko irailaren 1era arte.

Eskatzaileek honako hauek egin behar dituzte:

1. Espainiako titulartasun publikoko ospitale-, unibertsitate- edo ikerketa-zentro bat hartzeko proposamena izatea, zentro horretan ikerketa-proiektu bat garatzeko.
2. Harrera-erakundearekin batera, irismen luzeko ikerketa-proiektu bat aurkeztea, dagozkion helburuekin, kronologiarekin eta ezagutzaren edozein arlotako jarraipen-adierazleekin.

GARRANTZITSUA: Hemen zehazten den informazioa deialdiaren laburpena besterik ez da. Informazioa emateko baino ez da, eta interesdunak deialdia irakurri behar du, deialdiaren alderdi guztiak ezagutzeko.

Izena emateko zentroari dagokion eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa eskabideak aurkezteko epea amaitu baino astebete lehenago eskatu beharko da, gutxienez, helbide honetara: pre-postdoc.dgi@ehu.eus

Fundazioarekin harremanetan jartzeko: Dokumentazio guztia, behar bezala beteta, elektronikoki gordailutuko da fundazioaren webgunean.

Web: www.fundacionareces.es

UPV/EHUren kontaktua:

E-mail: pre-postdoc.dgi@ehu.eus